

Kontuan izanda gure enpresa hirugarren sektoreko enpresa bat dela eta gure lana bezeroei zerbitzu bat eskaintzea dela, hauek gurera iristeko izango dituzten erraztasunak ere kontuan hartu behar izan ditugu. Eta hori dela eta hainbat erabaki eta ekintza eraman behar izan ditugu aurrera gure enpresara iristeko bideak errazteko

Alde batetik, garraio publikoari dagokionez, gure enpresa Lasarten kokatua dago eta probintziako edozein lekutatik bertara iristea oso erraza da, izan ere, topo zein autobus zerbitzu oso ona dago. Gure intentzioa topo eta autobus geltoki nagusietan eta hauen inguruan gure enpresaren kokalekua eta hara iristeko bidea azaltzen duten kartelak jartzea da. Horrela, bezeroarentzako, behin Lasartera iritsita oso erraza egingo zaio guregana eltzeta.

Beste alde batetik, bezeroek gurera beren garraioetan etorri nahi badute, moto eta kotxeentzako aparkaleku bat eraikiko dugu guru lursailean. Hau erabiltzea doakoa izango da bezeroentzat eta hogeit bat kotxentzako lekua edukiko duela aurreikusten dugu. Era beren parking-ak autobusek ere aparkatu ahal izateko modukoa izango da eta ez dugu albo batera uzten etorkizunean kotxe elektrikoak kargatzeko posteren bat edo beste jartzea.

Hirugarrenik, probintziako ikastolentzako edo kanpotik datozen talde handientzako geure autobus zerbitzu propioa jarriko dugu erabilgarri. Gau arduratuko gara autobusak alokatzez eta bezeroak jaso eta geurean egon ondoren beren bizilekuetara itzultzeaz. Autobusa erabili ahal izateko aste bete lehenago jakinarazi beharko digute bezeroek eta doakoa izango da 25 pertsona baino gehiagoko taldeentzat. Behar izan ezkeru autobus bat baino gehiago jarri genezake gure bezeroen zerbitzura, aurrez aipatutako aparkalekuan aukera baitago autobus bat baino gehiago aldi berean aparkatzeko.

Hauek izango liriateke bezeroak guregana era eroso batean etor daitezen aurreikusi ditugun kanalak.